

ORERETA IKASTOLAK bere langileen segurtasuna eta osasunarenganako konpromezua jarraituz arrisku psikosozialen ebaluaketa eraman du aurrera Erreterian dituen zentruetan.

Ebaluaketa psikosozial hau Psikosoziologian aditua den **Quirónprevención**-eko teknikoarengatik egin da.

Lan prozedurak etapa hauek izan ditu:

1. Ikastolaren datu hartzea eta hauen analisia.
2. **Laneko segurtasun eta osasuneko institutu nazionala (INSST)** ren arrisku psikosozialen ebaluaketaren metodologia aplikatu da langileen laneko baldintzen pertzepzioa jasotzeko, **FPSICO 4.0. bertsioa** erabiliz.
3. **Laneko baldintzen inguruko Erdi egituratutako elkarrizketak** burutu dira langile eta langileen ordezkarietara.

Arrisku psikosozialen ebaluaketaren prozesua 2020/2021 urteetan garatu da.

Lortu den partaidetza % **54**-koa izan da alderdi kuantitatiboan (galdesortaren betetzea) eta % **114**-koa alderdi kualitatiboan (egindako banakako elkarrizketetan).

Jarraian ebaluaketa prozesuan erabili diren galdesorteen emaitzak erakusten dira **ORERETA IKASTOLAK** langileena:

Ebaluaketa metodoaren emaitzak 4.0 bertsioarekin (I.N.S.S.T.)

FPSICO 4.0 instrumentuak puntuazio zuzenak pertzentiletan ematen ditu eta honek arrisku maila ezberdinak zehazten baimentzen du. Hauek 4 mailatan kokatzen dira:


Pertzentila	Arriskua
Pertzentil \geq P85	Oso Altua
P75 \leq Pertzentil < P85	Altua
P65 \leq Pertzentil < P75	Neurrizkoa
Pertzentil < P65	Egoera egokia

Metodologia honek hurrengo faktoreen erlazioa isladatzen du:

- Lan denbora (TT)
- Autonomia (AU)
- Lan karga (CT)
- Eskaera Psikologikoak (DP)
- Lanaren aniztasuna/edukia (VC)
- Partaidetza / Superbisioa (PS)
- Langilearekiko interesa /Ordaina (ITC)
- Rol Jarduera (DR)
- Erlazioak eta babes soziala (RAS)

Faktore psikosozialen galdesortaren metodoarekin atera diren Datuak Balorazio perfila (grafikoa) eta deskriptiboa ateratzea

baimentzen du:



EGINDAKO ELKARRIZKETAK

Laneko baldintzen inguruko elkarrizketa erdi estrukturatuak egin dira lanpostuka eta baita langileen ordezkarietara ere.

Langileek beraien lan baldintzen pertzepzioa adierazi dute, galdesortetan ateratako emaitzak komentatu eta kontrastatzeko.

ORERETA IKASTOLA 31 elkarrizketa

Zuzendaritzaren eta langile guztien partehartzea eta lankidetzaren oso positiboa eta lagungarria izan da lana burutzeko garaian.

Segurtasun eta Osasun Batzordeari eta langileen ordezkarietara komunikatutako ondorioak edo emaitzak honakoak izan dira:

Gaur eguneko ikastolaren baldintza psikosozialen arriskuaren balorazioa **NEURRIZKOA** edo **MODERATUA** izan da langileen osasunerako eta beraz, ekintzen erdizkako lehen tasuna edukiko duten implantazioa edo ezarpena behar dute.

Ebaluaketa honetatik **7 neurri prebentibo, ekintza eta proposamen batzuk** definitu dira langileen osasun eragina izan ditzaketen arriskuak gutxitu edo ezabatatzeko.

Neurri hauen gain jarraipen bat egingo da efektibitatea eta inplantazioa baloratzeko.

(Proposatutako neurriak alde sozialekin eztabaidatu behar ditu ikastolak eta ondorengo zuzenketa edo onarpena burutu hauen inguruan)